

**TIKTOK**

---

## TIKTOK

---

Txosten honetan aurkezten dira 2021-2022 ikasturtean egindako zazpigarren inkestan jasotako emaitzak. TikTok sare sozialaren inguruan jardun dugu nagusiki inkesta honetan.

### 1. OHAR METODOLOGIKOAK

Azterketa-lan hau egin den unean, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko (UPNA) mila ikasletik gorak osatzen dute Ikusiker Panela. Unibertsitari hauek modu iraunkor eta maiztasun handiz erantzuten dituzte luzatzen zaizkien online galdera-sortak, beti ere ikus-entzunezkoen kontsumoei eta IKTen-Informazio eta Komunikazio Teknologien erabilerei buruzkoak. Panela 2018-2019 ikasturtean sortu zen Applika izeneko ikerketa-proiektuaren barruan (US17/40). UPV/EHUko NOR ikerketa-taldeak eta EITB-k abiatutako proiektuan unibertsitateko ikasketa desberdinetako eta hiru kanpusetako ikasleak biltzen ditu panelak. Galdetegiak encuestafacil.com plataformaren bitartez kudeatzen dira eta hortik jasotako datu baseak Aztiker Soziologia Ikerketa Unitateak ustiatzen ditu.

Txosten honetan aurkituko dituzu 2022ko maiatzaren 9tik 15era bitartean martxan izandako inkestaren emaitzak. Hilabete honetan TikTok sare sozialaren erabilera eta sormenari buruzko datuak lortu dira: zenbat eta nola erabiltzen duten, ze hizkuntzatan, gustuko dituzten profilak, sortzaile modura zer eta nola sortzen duten... 1.173 erantzun hartu dira kontuan, baliozko panelista guztienak (inkestaren amaierara iritsitakoak eta errepikatu gabeak).




**2. TIKTOK**

Inkesta honetan TikTok sare sozialaren erabilerari buruzko galderak egin dira, bai edukien hartzaile moduan eta baita sortzaile gisara ere.

Inkestatuen % 59,4k esan du baduela TikTokeko kontu bat, zehazki 695 pertsonak. Hemendik aurrerako galdera guztiak pertsona horiei bakarrik egin zaizkie.


1. Irudia – Baduzu TikTok konturik?



Iturria: Ikusiker Applika +

Zenbatean behin erabiltzen duten galdetuta, ia hiru laurdenek egunean behin erabiltzen du gutxienez (% 35,7k egunero eta % 37,0k egunean behin baino gehiagotan).


2. Irudia – Zenbatero erabiltzen duzu TikTok?



Iturria: Ikusiker Applika +

Astegun edo asteburua izan, erdia baino gutxiago erabilera antzekoa egiten dute aplikazio honena (% 45,1ek); oso antzekoak dira astegunetan gehiago eta asteburuetan gehiago erabiltzen duten bi aldeetako kopuruak.

3. Irudia – Noiz erabiltzen duzu gehiago TikTok, astegunetan ala asteburuetan?




**Erabiltzeko maiztasuna**

Iturria: Ikusiker Applika +

Inkestatuen % 62,0k gutxiago erabili nahiko lukete aplikazio hau: % 31k “askoz denbora” gutxiagoz eta beste % 31k “apur bat” denbora gutxiagoz. Beste heren bat konforme dago gaur egun daukan erabilerarekin, eta ia inork ez dio gehiago erabili nahiko lukeenik.

4. Irudia – Aukera izango bazenu, denbora gehiago ala gutxiago pasatuko zenuke TikToken?




**Erabilera desiraturua**

Iturria: Ikusiker Applika +

TikTokera sartzeko aipatzen den gailu nagusia, zalantzarik gabe, mugikorra da: % 98,2k dio hori dela erabiltzen duen aparailua nagusiki. % 1,2k tableta ere aipatu du, % 0,5ek ordenagailu eramangarria eta % 0,2k telebista pantaila (kasu bakarra).

5. Irudia –Zein gailu erabiltzen duzu TikTokera sartzeko?




Iturria: Ikusiker Applika +

Segidan, TikToken egin daitezkeen jarduera batzuk zein maiztasunekin egiten dituzten galdetu da. Bi bloke nagusitan banatu dira jarduerak: batetik, maiztasun handiago edo txikiagoarekin, egin ohi diren ekintzak (hiru daude) eta, bestetik, ia inoiz egiten ez diren ekintzak (beste hiru daude hemen).

Inkestatuek gutxienez noizean behin egiten dituzten jardueren artean honakoak daude: “beste erabiltzaileek igotako bideoak ikusi” (% 75,2k egunero egiten du gutxienez), “TikToken erabilera orokorrean” (% 73,9k egiten du egunero) eta “atsegin dituen bideoetan bihotzari eman” (% 54,8k egunero egin ohi du).

Galdetu diren beste hiru ekintzen kasuan, hiru laurdenak baino gehiagok dio ez dutela inoiz egiten edo oso gutxitan egiten duela. Hemen kokatu dira jarrera aktiboagoa eskatzen duten ekintzak: “besteen bideoetan iruzkinak / aipamenak idatzi”, “bideoak igo” eta “zuzenekoak egin (live)”.


6. Irudia – Zein maiztasunekin egiten diren ekintza batzuk TikTok-en.



Iturria: Ikusiker Applika +

TikTok-en ikusten diren hizkuntzen artean, gaztelania eta ingelesa dira nagusi. % 72,1ek dio ikusten dituen bideoetan gaztelania izaten dela nagusi, eta % 25,8k ingelesa izaten dela. Euskara eta beste hizkuntzak % 1,1ek aipatzen dituzte, hurrenez hurren.

7. Irudia – TikTok-en ikusten dituzun bideoetan zein da hizkuntza nagusia?



Iturria: Ikusiker Applika +

TikTokeko sortzaileen artean gustukoena dituztenak galdetzean, profilik gustukoena @ibaillanos izan da, bigarren aipatuena @lolalolitaaa, jarraian @peldanyos izeneko sortzailea eta laugarren postuan @esperansagrasia komediazko profila. Jasotako aipamen kopuruan ez dago alde nabarmenik, bakoitzak hartutako erantzun kopurua ere ez baita nabarmena izan.




Iturria: Ikusiker Aplikka +

### 3. TIKTOKEN EGILE MODURA


TikTok kontu bat duten pertsona guztien artean, % 77,3k dio ez duela bideorik igotzen sare sozial honetara. % 22,7k, beraz, igotzen ditu moduren bateko edukiak (149 pertsonak guztira).

### 8. Irudia – Adierazi TikTokera igotzen dituzun edukiak nola sortzen dituzun nagusiki.



Iturria: Ikusiker Aplikka +


% 22,7 hori honela banatzen da edukiak sortzeko moduari dagokionez: % 34,2k aurretiaz pentsatutako bideoak sortu eta igotzen ditu; % 26,8k momentuan bururatu, sortu eta igotzen ditu; % 21,5ek galerian gordeta dituen bideoak igotzen ditu; eta bestelako aukeretan kokatzen da beste % 16,9a.



Iturria: Ikusiker Applika +

Eduki motari dagokionez, gehienek modako bideoak sortzen dituzte: % 38,3ren kasuan hori da igotzen duten eduki nagusia eta beste % 33,6ren kasuan bideo mota hori sormen propioen pare igotzen dute (nagusiki sormen propioak igotzen dituztenak % 16,8 dira eta bestelako edukiak igotzen dituzte beste % 11,4ak).

9. Irudia – Zein eduki mota igotzen duzu TikTokera?




Iturria: Ikusiker Applika +



Kategoriari dagokionez, igotzen dituzten bideo ohikoenak “bideo barregarriak” dira, % 29,1ek hala adierazten baitu. Bigarren lekuan, parez pare, “modan dauden bideoen bertsioak (biralak, hashtag popular...)” eta “koreografiak” daude (% 20,9k aukeratuta). Hirugarren lekuan “nire egunerokoan pasatzen zaizkidan gauzen bideoak” aipatzen dira (% 13,5ek).


10. Irudia – Zeintzuk dira TikTokera igotzea gogokoan dituzun argazki, bideo eta edukiak?



Iturria: Ikusiker Applika +

Hizkuntzari dagokionez, % 64,9k dio beti gaztelaniaz sortzen dituela bideoak, eta % 16,9k gaztelaniaz euskaraz baino gehiago sortzen dituela. Hirugarren lekuan “euskara eta gaztelania ez diren beste hizkuntza batean gehiago” aukera dator (% 11,5ek). Euskarazko sormena handiagoa duten kasuak oso gutxi dira, % 4 guztira.


11. Irudia –Hizkuntza aldetik, zenbateko pisua dute euskarak eta gaztelaniaz TikTokerako sortzen dituzun bideoetan?



Iturria: Ikusiker Applika +

TikTok baloratzeko eskatuta, 8,0ko batezbestekoa eskuratu du (% 40,8 balio honetan kokatu da, % 32,5 hemendik gora eta % 26,7 behera).

12. Irudia –TikToki buruzko balorazio orokorra egin beharko bazenu, nolako nota jarriko zenioke?



Iturria: Ikusiker Applika +